

Omenaldia

Joseba Intxausti

Lagunok:

Lehenik, Mendebalde Kultura Alkarteari barrundik datorkidan “eskerrik asko” beroa eman nahi diot, beren estimua honela agertu nahi izan didalako. Mila esker, bada! Era berean eskerrak Paulo-ri ere, hartu duen lanagatik, ekitaldi hau eratzean zigortu bakarra bera izan baita. Badakit jardun egin behar izan duela: barka!

Bizkaian beti sentitu izan dut nire burua eroso ez ezik lagunartean ere; bertako lurraldea eta jendeak hurbilak ditut, gaztetatik, eta hurbiltasun hori ez dut galdu, nahiz eta aspalditik Gipuzkoan bizi naizen. Paulok esan dituenak egiak dira.

Entzundakoak adituta, ez naiz hasiko orain ekin-gogoia falta izan zaidala esaten; baina, bizitzari atzera-begiratu luzatzean, gehiena premien eta zereginen *parean suertatu* naizelako jazo dela baieztatu dezaket. Ez da harritzekoa, bizitzako legea baizik. Gizartean eta historian, uste dudanez, gizabanakoak beti jarri behar du zerbait, eta hortxe dago guztion erantzukizuna; baina, inguru sozialik gabe, geure banakotasun isolatuan, oso antzuak gara denok ere.

Euskararen modernitatea lantzea tokatu zitzaion gure belaunaldia-ri, 1960 inguruan euskalgintzara iritsi zenari, aurrekoen proposamen

eta gogo ezin beteak 1936an moztu zizkietenez gero. Abiapuntu har-
tan (1960), modernitateak bere tresneria behar zuenez, hizkuntzaren
corpus-ean bezala *status*-ean gogor jardun behar izan zen.

Garai honetan (1960-2000) goldatutako alorrik baliozkoenak
laburbildu behar bagenitu, agian puntu hauek behintzat aipatu
beharko genituzke.

Corpus-ean: euskara estandarerako batasun-egitaraua (Euskal-
tzainditik eta beronen arrastotan gizartean egindakoa), irakas-mundu-
ko testugintza, liburugintzak eta aldizkariak ekarri duten testu-masa-
ren biderketa, hizkuntza eta hizkera mintzatuen finkapen eguneratua,
etab. Hor dago parean terminologiarena ere. Oro har, *corpus*-aren
modernitatea.

Status-ean: Aurreko horrek, noski, euskaldunen sostengu eta
erantzuna izan ditu, guztia bermatzeko. Mintzatzaileen hizkuntz



*Omendua jaurdunaldietako hizlariekin eta Mendebalde Kultura Alkarteko kideekin
jardunaldien amaieran.*



Joseba Intxausti Esti Izagirrearen eskutik oroigarria jasotzean.

kontzientzia argituagoa; euskal eskolagintza (soziala eta publikoa), euskarazko hedabideen sarea (hemen ere bi sektoreak), hizkuntzaren inguruko enpresa-sarea (argialetxeak, disketeak), ikus-entzunezkoak, herri-zerbitzuen euskalduntze maila berria; guztia burutzeko gizarteak eta erakundeek jarri dituzten baliabide ekonomikoak, giza baliabideen euskal gaikuntza eta ugaltzea, etab.; ofizialtasun-maila ezberdinek ere ekarri dute aurreramendua (administrazio eta zerbitzuetan). Euskararen hizkuntz produkzio sozialak nabariki gora egin du, 1960tik hona, bere teknikari, lantegi eta elkarte edo erakundekin. Aski den ala ez, edo bide egokienetik izan den ala ez, hori besterik da.

Joseba Intxausti

Honekin guztiarekin zer esan nahiko nukeen? Norberaren lanak eman ditzakeen segurtasuna eta gerorako itxaropena oso apalak direla, eta, zinez irauteko, gisa batean edo bestean inguruarekin batera jardun beharra dagoela, oraingo inguruarekin eta iraganetik datorkigunarekin.

1960tik hona egin behar izan den larrialdiko lanak bere arrakasta ereindakoa ondoko belaunean berregin eta birsortzean izan du. Segi-da hori dagoeneko segurtatu ote den nago. Belaun berrikook duzue hitza; zuek ez zarete gure garaiko berrogeita hamar lagun, milaka bai-zik.

Bukatzeko: une honetan, orain, guk egina baino zuek egitekoa eta egingo duzuen interesa zaitzkit gehiago, horiek salbatuko baitute guri zegokiguna ere.

Eskerririk asko belaun arteko hitzordu honetara etorri zaretenoi, esker anitz guztioi.

Joseba Intxausti
2005-05-07